



Gure ondarea

Gai honekin zerikusia duten arloak

- GIZARTE ZIENTZIAK.
- HIZKUNTZAK.

HELBURUAK

- Ondare izenpean sar daitezkeen elementuak ezagutzea.
- Norberarentzat gustokoenak diren ondareko elementuak identifikatzea eta aukeraketa horren zergatiak besteekin konpartitzea.
- Ondareko elementu garrantzitsuenak besteekin adostea eta komunikatzea, klasean eztabaida sortuz.

MATERIALAK

- ◆ Argazkiak eta/edo inprimakiak.
- ◆ Interneteko konexioa.

ALE HONETAKO BEDERATZIGARREN orrialdean ondarea zer den definitu dugu. Honi jarraituz ariketa berri bat proposatuko dugu. Bertan ondarearen inguruan ariko gara eta ondarearen barrukaldea ezagutuko dugu ariketa honen bidez.

1. Lehendabizi aukeratu bakarka baliabide historiko eta kultural mota bakoitzeko bi elementu gehienez norberarentzat garrantzitsuenak direnak.

2. Talde txikietan elkar jarri eta adostu mota bakoitzeko bi elementu gehienez.

3. Amaitzeko, klase guztiaren artean adostu mota bakoitzeko hiru elementu gustokoenak. (Aukeratutako elementu hauen argazkiak/inprimakiak/marrazkiak /... gelako paretetan/pasiloan/... jartzeko erabil daitezke.). Horrela, ondarea gertu izango dugu.

